

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

*Azterlan eta Lege Araubide
Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

PRESIDENCIA

*Dirección de Estudios y
Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica*

**HEZKUNTZA EAEN
LA EDUCACIÓN EN LA
CAPV**

**(HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA
IKERKETA SAILA / DPTO. DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN)**

**2004ko Ekaina
Junio 2004**



http://www.euskadi.net/estudios_socilogicos

Aurkibidea / Índice

SARRERA / INTRODUCCIÓN	1	C – ZENTRO PUBLIKO ETA PRIBATUAK / CENTROS PÚBLICOS Y PRIVADOS	32
LABURPENA / SÍNTESIS	4	• Zentroen kalitatea / Calidad de los centros	33
A – EAĒKO IRAKASKUNTZAREN BALORAZIOA / VALORACIÓN DE LA ENSEÑANZA EN LA CAPV	11	• Seme-alabak matrikulatzeko nahi den zentro mota / Tipo de centro deseado para matricular a los hijos e hijas	35
• Administrazioaren jardunaren balorazioa hainbat arlotan / Valoración de la actuación de la Administración en distintas áreas	12	• Zentro publikoa nahiago izateko arrazoiak / Razones para preferir un centro público	37
• Administrazioaren jardunaren balorazioa Hezkuntzan / Valoración de la actuación de la Administración en Educación	14	• Zentro pribatua nahiago izateko arrazoiak / Razones para preferir un centro privado.....	41
• Euskadiko eta Estatuako hezkuntza sistemen arteko konparazioa / Comparación del sistema educativo vasco con el estatal	16	• Zentro publiko edo pribatua nahiago izateko arrazoen konparazioa / Comparación de las razones para preferir un centro público o privado	45
• Irakaskuntzari eskainitako baliabideak / Recursos dedicados a la enseñanza.....	18	D – HIZKUNTZEN IKASKETA / APRENDIZAJE DE IDIOMAS	47
• Derrigorrezko irakaskuntzaren balorazioa Euskadin / Valoración de la enseñanza obligatoria en el País Vasco.....	20	• Ingelesaren ikasketa 3-4 urtetik aurrera / Aprendizaje del inglés desde los 3-4 años	48
B – HEZKUNTZARI BURUZKO IDEIA OROKORRAK / IDEARIO SOBRE LA EDUCACIÓN	22	• Hizkuntzak hitz egitearen komenentzia eta gaitasuna / Conveniencia y capacidad de hablar idiomas	50
• Hezkuntza zentroetan garatu beharreko balioak / Valores a desarrollar en los centros educativos	23	E – BEKAK / BECAS	52
• Jatorri eta kultur askotarikoak ikasgeletan / Diversidad de orígenes y culturas en las clases	26	• Bekak derrigorrezko hezkuntzan / Becas en la enseñanza obligatoria.....	53
• Askotariko ikasleak ikasgeletan / Diversidad de alumnado en las clases	28	• Material didaktikorako beka derrigorrezko hezkuntzan / Becas para material didáctico en la enseñanza obligatoria	54
• Partaidetza zentroen funtzionamenduan / Participación en el funcionamiento de los centros.....	30	• Jantokirako beka derrigorrezko hezkuntzan / Becas para comedor en la enseñanza obligatoria	56
		• Garraiorako beka derrigorrezko hezkuntzan / Becas para transporte en la enseñanza obligatoria	58

- Hizkuntzen ikasketak indartzeko bekak derrigorrezko hezkuntzan / Becas para refuerzo de idiomas en la enseñanza obligatoria..... 60
- Derrigorrezko hezkuntzaren ondokoan bekak emateko irizpideak / Criterios para conceder becas en enseñanza post-obligatoria 62
- Unibertsitateko irakaskuntzaren finantziakzioa / Financiación de la enseñanza universitaria..... 64

F – 0-3 URTE ARTEKO HEZKUNTZA / EDUCACIÓN DE 0 A 3 AÑOS.... 66

- Haurtzaindegi eta haur eskolen kopurua / Volumen de guarderías y escuelas infantiles 67
- Haurtzaindegi eta haur eskolen ordutegia / Horario de las guarderías y escuelas infantiles 69
- Haurtzaindegi eta haur eskolen prezioa / Precio de las guarderías y escuelas infantiles 71
- Eusko Jaurlaritzak haurtzaindegi eta haur-eskolak sortzea / Creación de guarderías y escuelas infantiles por parte del Gobierno Vasco..... 74
- Haurtzaindegi eta haur-eskola publikoen finantziakzioa / Financiación de las guarderías y escuelas infantiles públicas 76
- Haurtzaindegi eta haur-eskola pribatuen finantziakzioa / Financiación de las guarderías y escuelas infantiles privadas..... 79

- Jantokia haurtzaindegi eta haur eskoletan / Comedor en las guarderías y escuelas infantiles 82
- Haurtzaindegi eta haur eskoletan nahiago den hizkuntza eredua / Preferencia de modelo lingüístico en las guarderías y escuelas infantiles 84

G – LANBIDE-HEZIKETA / FORMACIÓN PROFESIONAL.....86

- Euskadiko Lanbide-Heziketaren balorazioa / Valoración de la Formación Profesional en el País Vasco..... 87
- Lanbide-Heziketaren balorazioaren konparazioa Estatuarekin / Comparación de la valoración de la Formación Profesional con el resto del Estado 89
- Lan mundurako prestakuntza LHrekin / Preparación laboral con la FP 91
- Lana aurkitzeko erraztasuna / Facilidad para encontrar trabajo... 93
- LH edo unibertsitatearen arteko lehentasuna / Preferencia entre FP y Universidad 95

ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / FICHA TÉCNICA.....97

Sarrera / Introducción

Helburuak / Objetivos

Txosten honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) eskaintzen den hezkuntzaren inguruan herritarrek duten iritzia ezagutzea da. Horretarako, hezkuntzaren berriazko hainbat alderditan sakondu da, hala nola, hezkuntzari buruzko ideiak, zentro publiko eta pribatuen balorazioa, hizkuntzen ikasketa, bekak, 0 eta 3 urte arteko hezkuntza edo lanbide heziketa.

Zenbait kasutan aurreko epeetako datuak dauzkagu, zehatzago 1992, 1996, 2001 edo 2002koak, hori dela eta euskal herritarren iritzien eboluzioaren ikuspegi kronologikoa eskaini dezakegu.

El objetivo del presente informe es conocer la opinión de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco sobre la enseñanza ofertada en la CAPV. Para ello se ahondará en aspectos específicos relacionados con la educación como son el ideario educativo, la valoración de los centros públicos y privados, el aprendizaje de idiomas, las becas, la educación de 0 a 3 años o la formación profesional.

En algunos casos se dispone de datos relativos a períodos anteriores, más concretamente de 1992, 1996, 2001 ó 2002, con lo que se puede ofrecer una visión cronológica de la evolución de las opiniones de la población vasca.

Informazioaren iturria / Origen de la Información

Lan honetako emaitzak 2004. urtearen hasieran Eusko Jaurlaritzaren hainbat sailetarako egindako ikerketan erabilitako berriazko galdesortatik datoz.

Inkestan planteatzen diren gai zehatzak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egindako eskaera batean oinarritu dira eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariatzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen lankidetzarekin landu dira. Galderak prestatzea, azterketa estatistikoa eta, txostenaren idazketa eta edizioa, Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagozkio.

Los resultados de este trabajo proceden de un bloque de preguntas ad hoc incluidas en el cuestionario utilizado en el estudio realizado para diversos departamentos del Gobierno Vasco a inicios de 2004.

Las cuestiones concretas planteadas han sido elaboradas a partir de una petición del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, y en colaboración con el Gabinete de Prospección Sociológica de la Presidencia del Gobierno Vasco. La elaboración de las correspondientes preguntas, el análisis estadístico y la redacción y edición del informe corresponden al Gabinete de Prospección Sociológica.

Kolektibokako azterketa / Análisis por colectivos

Inkestako datuak aztertzen dira ez bakarrik biztanleria osoari dagozkion datuetatik abiatuta, baizik eta, gizarte-kolektiboaren artean aldagai soziodemografiko eta soziopolitikoaren arabera ezberdintasun adierazgarriak osatzen dituzten multzoak ere oinarri izanik. Aztertutako aldagaiak (eta osatutako azpitaldeak, letra etzanaz agertzen direnak) honakoak dira:

- Lurraldea: *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.*
- Sexua: *emakumezkoa eta gizonezkoa.*
- Adin taldeak: *15-17, 18-29, 30-45, 46-64 eta >64.*
- Udalerriaren tamaina: *txikia (<10.000 biztanle), ertaina (10.000-120.000 biztanle) eta*

Los datos de la encuesta son analizados, no sólo desde los totales poblacionales, sino también en base a segmentaciones sociodemográficas y sociopolíticas, en función de las diferencias significativas entre los diversos colectivos sociales. Las variables consideradas (y los subcolectivos formados, que aparecen en cursiva) son los siguientes:

- Territorio: *Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.*
- Sexo: *varón y mujer.*
- Grupos de edad: *15-17, 18-29, 30-45, 46-64 y >=65.*
- Tamaño de municipio: *pequeño (<10.000 habitantes), mediano (10.000-120.000)*

hiriburua (>120.000 biztanle: Vitoria-Gasteiz, Bilbo eta Donostia).

- Ikasketa maila: *lehen maila baino gutxiagokoak, lehen mailakoak, bigarren mailakoak eta goi-mailakoak*.
- Lan egoera: *lanean, langabezian, etxeko lanak, ikasten eta jubilatuak*.
- Hautemandako klase soziala: *baxua* (klase baxua edo langileena), *ertaina eta altua* (ertaina-altua edo diruduna).
- Euskararen jakintza: *ez* (ez daki ezer), *zerbait* (zenbait hitz edo zerbait daki) eta *bai* (nahikoa ondo edo zuzen hitz egiten daki).
- Ezker-eskuin ardatza: *ezkerra* (ezker muturra + ezkerra + zentro ezkerra), *zentroa, eskuina* (eskuin muturra + eskuina + zentro eskuina), *ed/ee*.
- 16 urtez azpiko seme-alaba eskolatuak izan: *bai, ez*.
- Seme-alabak ikasten duen hezkuntza-zikloa: *hautzaindegia edo haur-eskola, haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza, gainerakoak* (ez dute ikasten ari den 16 urte baino gutxiagoko seme-alabarik).
- Seme-alabek ikasten duen zentro mota: *hautzaindegia edo haur-eskola, ikastetxe publikoa, ikastetxe pribatu* (kontzertatu izan edo ez)¹, *gainerakoak* (ez dute ikasten ari den 16 urte baino gutxiagoko seme-alabarik).
- Seme-alabek ikasten duten hizkuntza ereduak: *A ereduak, B ereduak, D ereduak, gainerakoak*² (ez dute ikasten ari den 16 urte baino gutxiagoko seme-alabarik).

1 Hasiera batean seme-alabak zentro kontzertatu eta zentro pribatuak (kontzertatu gabeak) eramaten zituztenak aparte hartu bagenituen ere, azken honetako kopuru urriak guztiak biltzera eraman gintuen, ez baitzen ezberdintasun esanguratsurik atzematen.

2 Galdetegian ikasketak atzerriko hizkuntzan (ingeleza, frantsesa, alemana...) egiten ziren galdetzen genuen baina ez ditugu tauletan jaso kopuru urria delako.

habitantes) y *capital* (>120.000 habitantes: Vitoria-Gasteiz, Bilbao y Donostia).

- Nivel de estudios: *<primario, primario, secundario y superior*.
- Ocupación principal: *trabajando, en paro, labores de casa, estudiando y jubilado/a*.
- Clase social sentida: *baja* (media baja u obrera), *media* y *alta* (media-alta o acomodada).
- Conocimiento de euskera: *no* (nada), *algo* (sólo palabras o algo), *sí* (bastante bien o correctamente).
- Eje izquierda-derecha: *izquierda* (extrema izquierda + izquierda + centro izquierda), *centro, derecha* (centro derecha + derecha + extrema derecha), *ns/nc*.
- Hijos/as menores de 16 años escolarizados: *sí, no*.
- Ciclo de enseñanza que estudia (el hijo o hija): *guardería o escuela infantil, enseñanza infantil, enseñanza primaria, enseñanza secundaria, resto* (no tiene hijos/as menores de 16 años escolarizadas).
- Centro en el que estudia (el hijo o hija): *guardería o escuela infantil, centro público, centro privado* (concertado o no)¹, *resto* (no tiene hijos/as menores de 16 años escolarizadas).
- Modelo lingüístico en que estudia (el hijo o hija)²: *modelo A, modelo B, modelo D, resto* (no tiene hijos/as menores de 16 años escolarizadas).

1 Aunque en un principio se trató por separado a quienes llevaban a sus hijos o hijas a centros concertados y a centros privados (sin concertar), el escaso número de efectivos de estos últimos aconsejaba agruparlos a todos ellos, dado que no se apreciaban diferencias destacables en sus respuestas.

2 En la encuesta se preguntaba por quienes cursaban sus estudios en algún idioma extranjero (inglés, francés, alemán...), si bien estos datos no han sido incluidos en las tablas debido a su escaso número de efectivos.

Laburpena / *Síntesis*

Puntuz puntu / Punto por punto

NOLA BALORATU DUGU EAE-KO IRAKASKUNTZA?

EAEko biztanleen %63k uste dute azken urteetan euskal Administrazioak Hezkuntza arloan izandako jardura ona izan dela, eta bakarrik Osasun arloan egindako lanak gaitzen du. Beste %26k hala-holakoa dela uste dute eta soilik %4k uste dute txarra izan dela.

Euskadiko herritarren %44ri iruditzen zaie bertoko hezkuntza sistema Estatukoa baino hobea (%44) edo parekoa (%31) dela, eta soilik %4k dio txarragoa dela.

Euskadin eskaintzen den derrigorrezko hezkuntzaren balorazioari dagokionez, herritarren %67k uste dute ona dela. Beste %21k diote hala-holakoa dela, iritzi kritikoa oso jende gutxi adierazi duelarik.

Azkenik, biztanleen erdia baino gehiago (%58) dira Eusko Jaurlaritzak hezkuntzari behar diren baliabideak eskaintzen dizkiola uste dutenak, aldiz beste %22k baliabide gutxiegi eskaintzen dizkiola uste dute.

NOLAKOA IZAN BEHARKO LUKE IRAKASKUNTZAK?

EAEko herritarrek uste dute hezkuntza zentroetan ondorengo balioak garatu beharko liratekeela: elkartasuna (%60k), elkarbizitza (%53k), erantzukizuna (%50ek) eta tolerantzia (%49). Jarraian eta garrantziaren arabera, honelako balioak agertzen dira: besteekin harremanak izatea eta portaera egokia (%35), bakea (%32), diziplina (%24), autonomia pertsonala (%21), obediencia (%16), imajinazioa (%11) eta, azkenik, fede erlijiosoa (%4).

%88k ondo deritzote ikasgela berean kultura eta jatorri askotariko ikasleak elkarrekin izatea. Baieztape hau %56raino jaisten da ikasle aurreratuagoak eta motelagoak elkarrekin ikasgela berean aritzeaz galdetzen denean.

Irakaskuntza zentroen funtzionamenduan gurasoen partaidetzaren (%81) baino ikasle partaidetzaren (%87) aldekoago da euskal biztanleria. Ikasleak nabarmendu dira gurasoen parte hartzearen alde gutxi agertu direnak direlako.

¿CÓMO VALORAMOS LA ENSEÑANZA EN LA CAPV?

El 63% de la ciudadanía de la CAPV cree que la actuación de la Administración vasca en el área de Educación ha sido buena en los últimos años, y únicamente es superada por la labor en materia de Sanidad. Otro 26% lo califica de regular y tan sólo un 4% piensa que ha sido mala.

La población vasca estima que el sistema educativo vasco es mejor (44%) o igual (31%) que el del resto del Estado y únicamente un 4% afirma que es peor.

En cuanto a la valoración de la enseñanza obligatoria ofrecida en el País Vasco, el 67% de los ciudadanos y ciudadanas opinan que es buena. Otro 21% la califica como regular, siendo la opinión crítica muy minoritaria.

Por último, también son más de la mitad de la población (58%) quienes consideran que el Gobierno Vasco dedica los recursos justos a la enseñanza, sin embargo otro 22% considera que se dedican demasiados pocos.

¿CÓMO CREEMOS QUE DEBERÍA SER LA ENSEÑANZA?

La población vasca cree que en los centros educativos se deberían desarrollar valores tales como la solidaridad (60%), la convivencia (53%), la responsabilidad (50%) o la tolerancia (49%). Les siguen, en orden de importancia, otro tipo de valores como, el relacionarse con los demás y los buenos modales (35%), la paz (32%), la disciplina (24%), la autonomía personal (21%), la obediencia (16%), la imaginación (11%) y, en último lugar, la fe religiosa (4%).

Al 88% le parece bien que en una misma aula haya alumnado de distintos orígenes y culturas. Este porcentaje desciende hasta el 56% cuando se les plantea que compartan la misma clase alumnos y alumnas más adelantados y más lentos.

La población vasca se muestra algo más favorable a una mayor participación de los alumnos y alumnas (87%) en el funcionamiento de los centros educativos que a la participación de los padres y madres (81%). El alumnado destaca por ser el colectivo menos favorable a la participación de los padres y madres.

ZENTRO PUBLIKOAK EDO PRIBATUAK NAHIAGO DITUGU? ZERGATIK?

EAEiko biztanleek ez dute iritzi bera irakaskuntza kalitaterik onena zein zentro motak eskaintzen duen galdetutakoan: %21ek uste dute hobe dela ikastetxe pribatuetan, %19k ikastetxe publikoetan, %17k ikastoletan (pribatu edo publikoak izan), beste %17k antzekoa dela leku guztietan eta beste %17k kalitatea zentroaren arabera dela. Gainontzeko %9k ez dute iritzirik eman.

Herritarrek derrigorrezko hezkuntzan seme-alabaren bat matriculatu beharko balute, %58k zentro publikoa (%32k eskola edo ikastetxe publikoa eta %26k ikastola publikoa) aukeratuko lukete eta %30ek zentro pribatua (%20k ikastetxe pribatua, kontzertatua ala ez, eta %10ek ikastola pribatua); beste %12k ez dakite zein aukera egingo luketen. Beren seme-alabak zentro publikoetara bidaltzen dituztenen %86k berriro zentro publikoen alde egingo lukete, berdin beren aukera errepikatuko lukete zentro pribatuetara bidaltzen dituztenen %79k ere. Maila sozialean gorantz egin ahala zentro publikoen aldekoak gutxitzen dira pribatuen alde.

Zentro batzuen edo besteen alde egiteko arrazoirik garrantzitsuenak dira irakaskuntzaren kalitate ona, hezkuntza proiektua eta irakasleak, kasu bietan. Zentro publikoen aldekoek gehiago aipatu dute pribatuen aldekoek baino ondoko arrazoen garrantzia: etxetik hurbil egotea, gurasoek zentro hauetan gehiago parte har dezaketela, ideologizatuak ez egotea eta erlijiosoak ez izatea. Beste aldetik, zentro pribatuen aldekoek garrantzi handiagoa eman diete honakoei: zentroaren instalazioei, ikasleei arreta gehiago eskaintzeari, zentroa ezagutu eta gustukoa izateari, 18 urte arteko hezkuntza-ziklo guztiak eskaintzeari eta premia gehiago dituzten ikasleei laguntza gehiago emateari.

ZER IRITZI DUGU HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZARI BURUZ?

15 urtetik gorako EAEko biztanleen %86k ondo deritzote haurrek 3-4 urtetik aurrera ingelesa ikasteari.

Derrigorrezko hezkuntza bukatzerakoan, 16 urterekin, neska-mutiek ondo hitz egiten jakin beharko lukete gaztelaniaz %98ren ustez, euskaraz %94ren ustez, ingelesez %82ren ustez eta atzerriko beste hizkuntza batean (frantsesa, alemana,...) %41ren ustez. Gaztelaniaren irakaskuntzari euskararen irakaskuntzari baino garrantzi handiagoa eman zaio (eta honi ingelesa edo beste hizkuntzei baino gehiago) talde guztietan, euren seme-alabak D eredura bidaltzen dituztenen artean izan ezik, horiek bien eza-gutzari antzekoa eman baitiote. Gipuzkoan ere euskarari gaztelaniari besteko edo gehiagoko garrantzia eman zaio.

Alabaina, gazteek derrigorrezko irakaskuntza bukatzerakoan hizkuntza hauek ongi

¿PREFERIMOS CENTROS PÚBLICOS O PRIVADOS?, ¿POR QUÉ?

La población vasca no tiene una opinión unánime sobre el tipo de centro educativo que ofrece la mejor calidad de enseñanza: un 21% cree que es mejor en los colegios privados, un 19% en los públicos, un 17% en las ikastolas (sean privadas o públicas), otro 17% opina que es igual en todos ellos y otro 17% que la calidad depende de cada centro. El 9% restante no opina.

Planteada la situación hipotética de tener que matricular a un hijo o hija en la enseñanza obligatoria, el 58% optaría por un centro público (un 32% por una escuela o colegio público y un 26% por una ikastola pública) y el 30% optaría por un centro privado (un 20% por un colegio privado, concertado o no, y un 10% por una ikastola privada); otro 12% no elige ninguna opción. El 86% de quienes envían a sus hijos e hijas a centros públicos volverían a optar por los centros públicos, igualmente repetirían su opción el 79% de quienes los envían a centros privados. La preferencia por los centros públicos desciende a favor de los centros privados a medida que se asciende en la escala social.

Las razones más decisivas para optar por un tipo de centro u otro son la calidad de la enseñanza, el proyecto educativo y el profesorado, en ambos casos. Quienes son partidarios de los centros públicos mencionan en mayor medida que quienes prefieren los privados la importancia de la cercanía del centro al hogar, el que los padres y madres puedan participar más en los centros, el que éstos no estén ideologizados y que no sean religiosos. Por su parte, quienes son favorables a los centros privados destacan por dar mayor importancia a las instalaciones del centro, a que se preste mayor atención al alumnado, al hecho de conocerlo y que le guste, a que oferte todos los ciclos de enseñanza hasta los 18 años y a que se dé mayor apoyo al alumnado con más necesidades.

¿QUÉ OPINAMOS SOBRE LA ENSEÑANZA DE IDIOMAS?

Al 86% de la ciudadanía vasca de 15 y más años le parece bien que los niños y niñas aprendan inglés desde los 3-4 años.

El 98% considera conveniente que los chicos y chicas sepan hablar bien en castellano al finalizar la enseñanza obligatoria con 16 años, el 94% en euskera, el 82% en inglés y el 41% en otro idioma extranjero (francés, alemán...). La mayor importancia concedida al aprendizaje del castellano sobre el euskera (y de éste sobre el inglés u otros idiomas) es unánime en todos los colectivos, salvo entre quienes envían a sus hijos e hijas al modelo D que conceden similar importancia al conocimiento de ambos. También en Gipuzkoa la importancia concedida al euskera es tanta o más que al castellano.

Sin embargo, a la hora de valorar la capacidad de la juventud para hablar bien estos idiomas al terminar la enseñanza obligatoria, los porcentajes se reducen sensiblemente.

hitz egiteko gaitasuna baloratu denean, ehunekoak nabarmen jaitsi dira. %78k uste dute gaztelaniaz ondo hitz egiteko gai direla, %53k euskaraz eta %19k ingelesez. Hizkuntzak jakiteko beharra eta antzemandako gaitasunaren ehunekoaren arteko desberdintasunak oso handiak dira euskararen (%94 eta %53, nor berean) eta ingelesaren (%41 eta %19, aurrez aurre) kasuetan. Beren seme-alabak D ereduan matrikulatu dituztenek ere uste dute gazteek gaztelaniaz euskaraz baino hobeto hitz egiten dutela.

ZER BEKA ETA NORENTZAT EMAN BEHARKO LIRATEKE?

Derrigorrezko irakaskuntzan ematen diren beken inguruan, badirudi biztanleek garrantzitsuen deritzotela zein familia motari ematen zaizkion eta ez zertarako, ez baitago alderik beka material didaktikorako, jangela, garraio edo hizkuntzen ikasketak indartzeko izatearen arabera. Herritarren %90etik gora dira diru-sarrera gutxi dituzten familiei helburu horietako edozeinetarako beka ematearen aldekoak, herritarren hiru laurdenen inguruk kide ugari familiei emango lizkiekete, bi heren inguruk guraso bakarrek familiei eta azkenik, herenak uste du familia guztiek jaso behar lituzketela laguntza hauek.

Derrigorrezko irakaskuntzaren ondorengoan beka emateko irizpideei dagokienez, %90ek ondo deritzote familiaren diru-sarrerak eta %71k ikasleen notak kontuan hartzeari.

Azkenik, EAeko biztanleak irakaskuntza unibertsitario pribatuaren finantziazioaren inguruan zatituta agertzen dira: %51k uste dute Jauriaritzak beken bidez lagundu behar duela, aldiz %43k diote mota honetako irakaskuntza nahi duenak bere polsiko-tik ordaindu beharko lukeela.

ZER IDEA DITUGU 0 ETA 3 URTE ARTEKO HAUR HEZKUNTZAZ?

Euskadiko herritarren %42k uste dute ez dagoela nahikoa haurtzaindegi eta haur-eskola 0 eta 3 urte arteko haurtzaindegi, beste %21ek badaudela uste duen arren. Zentro hauen orduetegiak erantzunik eman ez duen ehuneko kopuru handia dago (%49), hala ere zertxobait gehiago dira orduetegi gurasoen lanari egokitzen zaiola uste dutenak (%27) egokitzen ez dela uste dutenak baino (%24). Askok dira baita haurtzaindegiaren prezioei buruzko baloraziorik eman ez dutenak (%52 eta %69 arteko ez erantzunen portzentajeak); nahikoa gehiago dira garestiak direla uste dutenak (%32) merkeak direla (%2) uste dutenak baino, gainera, euren artean prezio ezberdintasunak handiak direla uste dute (%22) eta gehiengoak dio euren zerbitzuagatik 180€-ko prezioa garestiegia dela (%57). Zentroen eskasia eta garestitasuna neurri handiagoan aipatu dituzte 16 urtez azpiko seme-alabak dituztenek edo haurtzaindegi eta haur-

El 78% les cree capaces de hablar bien en castellano, el 53% en euskera y el 19% en inglés. Las diferencias en los porcentajes en cuanto a la conveniencia y la capacidad atribuida de hablar idiomas son muy grandes en el caso del euskera (94% y 53%, respectivamente) y del inglés (41% frente a 19%). Incluso quienes han matriculado a sus hijos e hijas en el modelo D consideran que la juventud habla mejor en castellano que en euskera.

¿QUÉ BECAS DEBERÍAN DARSE Y A QUIÉN?

En relación a las becas en la enseñanza obligatoria, la población parece considerar más importante a qué tipo de familias se les conceden estas ayudas, dado que no hay diferencias en función de que éstas sean para material didáctico, comedor, transporte o refuerzo de idiomas. Más del 90% de la ciudadanía es partidaria de concederles becas a las familias de bajos ingresos para cualquiera de esos fines, aproximadamente tres cuartas partes de la población se las concedería a las familias numerosas, en torno a dos tercios también a las familias monoparentales y por último, un tercio cree que todas las familias deberían beneficiarse de estas ayudas.

Respecto a los criterios para conceder becas en las enseñanzas post-obligatorias, al 90% le parece bien que se tengan en cuenta los ingresos familiares y al 71% las notas escolares.

Por último, la población vasca se muestra dividida en cuanto a la financiación de la enseñanza universitaria privada: el 51% cree que el Gobierno debe ayudar mediante becas, mientras que el 43% dicen que quien quiera este tipo de enseñanza debe pagarla de su bolsillo.

¿QUÉ IDEAS TENEMOS SOBRE LA EDUCACIÓN INFANTIL PARA NIÑOS Y NIÑAS DE 0 A 3 AÑOS?

El 42% de la ciudadanía vasca cree que no hay suficientes guarderías y escuelas infantiles para la infancia de 0 a 3 años, mientras que otro 21% piensa que sí las hay. Hay un gran porcentaje de gente que no responde sobre el horario de estos centros (49%), aunque son algunos más quienes creen que el horario se adecua al trabajo de los progenitores (27%) que quienes creen que no (24%). También son muchos quienes no emiten valoración respecto al precio de las guarderías (porcentajes de no respuesta que oscilan entre el 52% y el 69%); aún así, son bastantes más quienes las consideran caras (32%) que baratas (2%), añadiendo, además, que existe mucha diferencia de precio entre ellas (22%) y considerando mayoritariamente que el pago de 180€ mensuales por sus servicios es demasiado caro (57%). Tanto la escasez de centros como su carestía son mencionadas en mayor medida por quienes tienen hijos menores de 16 años estu-

eskoletan dituztenek.

Biztanleen %85ek uste dute Eusko Jaurilaritzak haurtzaindegi eta haur-eskolen sarea ezarri beharko lukeela. Publikoak izan ezker, iritzia zatitzen da diruz-laguntzak beharra duten familientzako bakarrik izan behar luketela (%37k), familia guztientzako zati batean diruz-lagunduta egon behar luketela (%24k) eta familia guztientzako dohain izan beharko luketela (%34k) uste dutenen artean; azkenik, gutxiengo batek (%1ek) soilik uste du gurasoek kostu osoa ordaindu beharko luketela. Zentroak pribatuak direnetan iritzia erabat aldatzen da: %29k uste dute beharra duten familientzat diruz-lagunduta izan beharko luketela, %24k familia guztientzako zati batean diruz-lagunduta izan behar luketela eta %11k guztientzako dohain izan behar luketela; azkenik, %31k uste dute gurasoek kostu guztiak ordaindu beharko lituzketela.

Euskadiko herritarren gehiengo nagusi batek (%92k) haurtzaindegi eta haur-eskola hauek jantokia izan beharko luketela diote. Bestalde, seme-alabaren bat bertan matrikulatu behar izanez gero, biztanleen erdiak (%53k) B ereduaren (euskaraz eta gaztelaniaz) alde egingo lukete, %37k D ereduaren (euskaraz) alde eta ozta-ozta %6k A ereduaren (gaztelaniaz) alde egingo lukete. Euren seme-alabak B eta D ereduaren matrikulatu dituztenen gehiengoak berriro eredu horiek aukeratuko lituzkete, aldiz, A ereduaren matrikulatu dituztenen artean %42raino jaitsi da aukera hori errepikatuko luketenen ehunekoak.

NOLA BALORATU DUGU EAE-KO LANBIDE HEZIKETA?

Biztanleen %62k uste dute Euskadin gazteei eskaintzen zaien Lanbide Heziketa ona dela, %15ek hala-holako dela eta soilik %2k txarra dela uste dute. Estatuko gainontzeko tokietan eskaintzen denarekin konparatuta, %29k uste dute hemengoa hobea dela, %25ek uste dute antzekoa dela eta bakarrik %1ek dio txarragoa dela.

Bestalde, herritarren bi herenek (%67k) uste dute LHk gazteak egoki prestatzen dituela lan munduan sartzeko, aldiz %13k uste dute ezetz eta %20k ez dakite edo ez dute erantzun. Gainera, %59k uste dute errazago dela lana aurkitzea Lanbide Heziketa ikasita eta %15ek errazago deritzote unibertsitateko ikasketak eginda; beste %18k uste dute egindako ikasketen araberakoa dela.

Lanbide Heziketaren balorazioa positiboa izan arren, norberarentzat edo beren seme-alabentzat LHko modulu edo unibertsitateko karrera ikastearen artean aukeratzera-koan, %44k unibertsitatea aukeratuko lukete, aldiz %29k LH.

diando y/o por quienes los tienen en guarderías y escuelas infantiles.

El 85% de la población cree que el Gobierno Vasco debería establecer una red de guarderías y escuelas infantiles. En el caso de ser públicas, la opinión se divide entre quienes creen que debería haber subvenciones solo para las familias necesitadas (37%), quienes creen que debería haber subvenciones parciales para todas las familias (24%) y quienes opinan que deberían ser gratuitas para todas (34%); por último, tan sólo una minoría (1%) cree que los padres y madres deberían pagar todos los gastos. En el caso de que los centros sean privados la opinión varía notablemente: un 29% cree que deberían estar subvencionadas para las familias necesitadas, un 24% cree que debería haber subvenciones parciales para todas las familias y un 11% que deberían ser gratuitas para todos y todas; por último, un 31% cree que los padres y madres deberían pagar todos los gastos.

La gran mayoría de la ciudadanía vasca (92%) opina que estas guarderías y escuelas infantiles deberían tener comedor. Por otro lado, en caso de tener que matricular en ellas a un hijo o hija, la mitad de la población (53%) se decantaría por el modelo B, en euskera y castellano, el 37% por el modelo D, en euskera; apenas el 6% se decantaría por el modelo A, en castellano. Los que han matriculado a sus hijos e hijas en los modelos B y D volverían a elegir esas opciones mayoritariamente, sin embargo, entre quienes los han matriculado en el modelo A desciende hasta el 42% el porcentaje de quienes volverían a repetir la elección.

¿CÓMO VALORAMOS LA FORMACIÓN PROFESIONAL DE LA CAPV?

El 62% de la población vasca cree que la Formación Profesional ofertada a la juventud en el País Vasco es buena, un 15% la considera regular y tan sólo un 2% la considera mala. Comparándola con la ofrecida en el resto del Estado, un 29% cree que la vasca es mejor, un 25% piensa que es igual y únicamente un 1% señala que es peor.

Por otro lado, dos tercios de la ciudadanía (67%) estiman que la FP prepara adecuadamente a la juventud para incorporarse al mundo laboral, frente al 13% que opina que no y un 20% que no sabe o no contesta. Además, el 59% cree que es más fácil encontrar trabajo habiendo estudiado Formación Profesional frente a un 15% que lo considera más fácil habiendo estudiado una carrera universitaria; otro 18% opina que ello depende de los estudios cursados.

A pesar de la positiva valoración de la Formación Profesional, al plantearse el tener que elegir para sí mismos o para sus hijos e hijas entre estudiar un módulo de FP o una carrera universitaria, el 44% optaría por la Universidad frente al 29% que optaría por la FP.

Aurreko neurketekin alderatuz / Respecto a períodos anteriores

1992tik gaur arte, Administrazioak Hezkuntza arloan egin duenari buruz Euskadiko herritarrek duten iritzia hobetu egin da: 1992an %38k ona zela bazioten, 2002an %58k zioten eta orain portzentaje hau %63raino igo da. Halaber, EAEn eskaintzen den derrigorrezko hezkuntza ona delako ideia 2002an %60k zioten eta 2004an %67raino iritsi da.

Elkartasuna, erantzukizuna, tolerantzia eta besteekin erlazionatzea ziren hezkuntza zentroetan garatu beharreko oinarriko balioak 2001ean eta 2002an. Aldiz, 2004an elkarbizitza eta bakea bezalako balio berriez galdetu denean, oinarrikotzat hartzen diren lau balioak elkartasuna, elkarbizitza, erantzukizuna eta tolerantzia dira.

Irakaskuntza zentroetako hezkuntza kalitateari buruz, pixka bat igo da kalitatea ikastoletan handiagoa dela uste dutenen ehunekoa. Aitzitik, ez dago aldaketarik zentro mota bat edo beste aukeratzeko arrazoi nagusiei dagokienean.

Gazteek derrigorrezko ikasketak bukatzerakoan hizkuntzak hitz egiteko gaitasuna dutela uste dutenen ehunekoa pixka bat igo da, bereziki euskara eta gaztelaniari dagokienean.

Desde 1992 hasta ahora, la opinión de la población vasca sobre la actuación de la Administración en el área de la Educación ha mejorado: si en 1992 el 38% la calificaba de buena, el año 2002 era el 58% y actualmente este porcentaje asciende hasta el 63%. De la misma forma, la idea de que la enseñanza obligatoria ofertada en el País Vasco es buena ha ascendido del 60% que lo consideraba buena en 2002 hasta el 67% en 2004.

La solidaridad, la responsabilidad, la tolerancia y el relacionarse con los otros eran consideradas los valores fundamentales a desarrollar en los centros educativos, tanto en 2001 como en 2002. En cambio, al incluir este año 2004 nuevos valores como la convivencia y la paz, los cuatro valores considerados fundamentales pasan a ser la solidaridad, la convivencia, la responsabilidad y la tolerancia.

Respecto a la calidad de la enseñanza en los centros educativos, aumenta ligeramente el porcentaje de quienes consideran que la calidad es mayor en las ikastolas. En cambio, no hay diferencias en las razones principales para la elección de un tipo de centro u otro.

El porcentaje de quienes creen que la juventud al terminar la enseñanza obligatoria es capaz de hablar idiomas ha subido ligeramente, especialmente respecto al euskera y el castellano.

AZKEN BURUAN / EN DEFINITIVA

EAEko herritarrek Hezkuntza arloan Administrazioak azken urteetan egindako lanean hobekuntza bat antzeman dute, gure hezkuntza sistema Estatuko gainontzekoa baino hobea edo antzekoa dela, hezkuntzari beharrezko baliabideak eskaintzen zaizkiola eta eskaintzen den derrigorrezko hezkuntza ona dela uste dute.

Irakaskuntza zentroetan lehentasunez garatu beharreko balioek elkartasuna, elkarbizitza, erantzukizuna eta tolerantzia izan beharko lukete; kultura eta jatorri askotarikoak nahiz gaitasun desberdineko ikasleak ikasgela berean izatea babesten da; eta besteak, zentroen funtzionamenduan guraso eta ikasleek parte hartze handiago izan beharko luketela uste da.

Biztanleak banatuta agertzen dira kalitate handiena zein zentro motak duen azaltzera-

La ciudadanía vasca percibe una mejora en la actuación de la Administración vasca a lo largo de los últimos años en materia de Educación, cree que nuestro sistema educativo es mejor o igual que la del resto del Estado, que el Gobierno dedica los recursos justos a la enseñanza y opina que la enseñanza obligatoria ofertada es buena.

Los valores a desarrollar preferentemente en los centros educativos deben ser la solidaridad, la convivencia, la responsabilidad y la tolerancia; se defiende, tanto la diversidad de culturas y orígenes como de alumnos con diferentes capacidades, en las aulas escolares; y además, se cree que debe haber una mayor participación del alumnado y de los progenitores en el funcionamiento de los centros.

La población se muestra dividida sobre qué tipo de centros son los que tienen mayor

koan, seme-alabak matrikulatzeko nahiago litzatekeen zentro mota biztanleriaren erdiantzat baino gehiagorentzat zentro publikoa den arren (ikastetxe edo ikastola publikoa), eta aldiz, herenak zentro pribatua nahiago duen. Kasu bietan, zentroa aukeratzeko arrazoirik garrantzitsuenak irakaskuntzaren kalitatea, hezkuntza proiektua eta irakasleak dira.

EAEko biztanleen gehiengoak komenigarri deritzo ikastetxeetan hizkuntzen ikasketa goiztiarrari (gaztelania, euskara eta ingelesa), nahiz eta hizkuntza horiek ondo hitz egiteko gaitasun txikiagoa aitortu gazteei horiei ematen zaien garrantzia baino, batez ere euskara eta ingelesari dagokienean.

Herritarren gehiengoak defendatu du derrigorrezko hezkuntzan diru-sarrera gutxiko familiei beka ematea, ondoren kide ugariako familiei eta azkenik, guraso bakarreko familiei. Heren batek uste du familia guztiek jaso beharko lituzketela beka hauek. Bestalde, derrigorrezko irakaskuntzaren ondorengoetan beka emateko irizpideak familien diru-sarrerak eta ikasleen notak izatea ondo baloratu da.

EAEko herritarrek uste dute ez dagoela nahikoa haurtzaindegi eta haur-eskola, garestiak direla eta euren artean prezio ezberdintasun handiak daudela; baita beraien zerbitzuagatik hileko 180€-tako prezioa garestiegia dela ere. Horregatik, gehiengoak Eusko Jaurlaritzak haur zentroen sarea sortzearen alde agertu da. Zentroak publikoak balira, osorik edo partez diruz-lagunduta egon behar luketela uste da; zentroak pribatuak balira, herenak uste du gurasoek ordaindu behar lituzketela gastu guztiak. La herritar guztiek uste dute zentro hauek jangela eduki behar luketela. Hezkuntza ziklo honetan seme-alabak matrikulatzeko nahiago den hizkuntza eredu B (euskaraz eta gaztelaniaz) da, eta atzetik D (euskaraz) eredu.

Euskal gizarteak uste du Euskadin gazteei eskaintzen zaien Lanbide Heziketa ona dela, Estatuko gainontzekoa baino hobea edo antzekoa. Lan munduan sartzeko ongi presta-tzen duela uste da eta, hain zuzen ere, errazago dela lana aurkitzea LH ikasita unibertsitateko ikasketak eginda baino. Hala ere, unibertsitatean ikastea LHko moduluaren bat ikastea baino gehiago lehenesten jarraitzen da.

calidad, si bien el tipo de centro preferido para matricular a sus hijos e hijas sería un centro público (colegio o ikastola pública) para más de la mitad, y en cambio, un tercio preferiría un centro privado. En ambos casos, las cuestiones más decisivas en la elección del centro son la calidad de la enseñanza, el proyecto educativo y el profesorado.

La gran mayoría de la población vasca considera conveniente el aprendizaje temprano de idiomas (castellano, euskera e inglés) en las escuelas, si bien la capacidad que se supone a la juventud para hablar bien dichos idiomas es menor a la importancia concedida, especialmente en lo relativo al euskera y el inglés.

La población defiende mayoritariamente que en la enseñanza obligatoria se concedan becas a las familias con bajos ingresos, después a las familias numerosas y por último, a las familias monoparentales. Un tercio cree que todas las familias deberían recibir estas becas. Por otro lado, respecto a las enseñanzas post-obligatorias se valora bien que los criterios para concederlas sean los ingresos familiares y las notas de los alumnos.

La ciudadanos y ciudadanas de la CAPV creen que no hay suficientes guarderías y escuelas infantiles, que son caras y tienen bastante diferencia de precio entre ellas; también, que el precio hipotético de 180 € mensuales por sus servicios es demasiado caro. Por ello, la mayoría se muestra favorable a la creación de una red de centros infantiles por el Gobierno Vasco. Si los centros fueran públicos, se considera que deberían estar subvencionados parcial o totalmente; en el caso de ser centros privados, un tercio considera que los progenitores deberían correr con todos los gastos. Se comparte ampliamente que estos centros deberían tener comedor. El modelo lingüístico más deseado para matricular a los hijos e hijas en este ciclo educativo es el B (en euskera y castellano), seguido del D (en euskera).

La sociedad vasca considera que la Formación Profesional ofertada a la juventud en el País Vasco es buena, mejor o igual que la del resto del Estado. Se cree que ésta prepara adecuadamente para acceder al mercado laboral y que, efectivamente, es más fácil encontrar trabajo habiendo estudiado FP que una carrera universitaria. Sin embargo, se sigue prefiriendo por cursar estudios en la Universidad frente a estudiar un módulo de FP.

A - EAEko irakaskuntzaren balorazioa / Valoración de la enseñanza en la CAPV

- **Administrazioaren jardunaren balorazioa hainbat arlotan / Valoración de la actuación de la Administración en distintas áreas**
- **Administrazioaren jardunaren balorazioa Hezkuntzan / Valoración de la actuación de la Administración en Educación**
- **Euskadiko eta Estatuko hezkuntza sistemen arteko konparazioa / Comparación del sistema educativo vasco con el estatal**
- **Irakaskuntzari eskainitako baliabideak / Recursos dedicados a la enseñanza**
- **Derrigorrezko irakaskuntzaren balorazioa Euskadin / Valoración de la enseñanza obligatoria en el País Vasco**

EAEko irakaskuntzaren balorazioa / Valoración de la enseñanza en la CAPV**Administrazioaren jardunaren balorazioa hainbat arlotan / Valoración de la actuación de la Administración en distintas áreas**


(GUZTIZKOAK) / (TOTALES)

Oro har, nola ikusten duzu azken urteotan Euskadiko administrazioa egiten ari den lana ondoko arloetan: ondo, hala-hola edo txarto?*

En general, ¿cómo le parece a Ud. que es la actuación que la Administración Vasca está llevando a cabo en estos últimos años en los siguientes temas: buena, regular o mala?*

	1992KO ABENDUA DICIEMBRE 1992	2002KO MAIATZA MAYO 2002	2004KO URTARRILA ENERO 2004
OSASUNA / LA SANIDAD	41	75	75
HEZKUNTZA / LA EDUCACIÓN.....	38	58	63
EUSKARA / EL EUSKERA	42	56	56
GIZARTE ONGIZATEA / EL BIENESTAR SOCIAL	32	48	48
INGURUMENA / EL MEDIO AMBIENTE	19	44	46
EMAKUMEEN BERDINTASUNA / LA IGUALDAD DE LAS MUJERES	35	39	41
ETXEBIZITZA / LA VIVIENDA	-	20	18

* ARLO BAKOITZEAN EGINDAKO LANA ONDO DAGOELA ERANTZUN DUTENEN PORTZENTAIA / PORCENTAJE DE QUIENES CONSIDERAN QUE LA ACTUACIÓN EN CADA UNA DE LAS ÁREAS PROPUESTAS ES BUENA.

Administrazioaren jardunaren balorazio ona hainbat arlotan / Valoración positiva de la actuación de la Administración en diversas (2004)

Administrazioaren hainbat arlotako jardunari buruz EAEko 15 urte eta gehiagoko herritarren iritzia galdetuta, baloraziorik onena Osasun arloak jaso du (%75ek ondo dagoela diote). Hezkuntza (%63k) eta Euskara (%56k) arloetako jardunak ere herritarren erdiek baino gehiagok ontzat jo dituzte.

Administrazioak Gizarte Ongizate arloan duen jarduna ongi baloratu dute herritarren %48k, Ingurumen arlokoa %46k, Emakumeen berdintasunaren aldeko jarduna %41ek eta, azkenik, Etxebizitzaren arloa herritarren bostetik batek baino gutxiagok baloratu dute ongi (%18k).

Datu hauek 1992an jasotakoekin konparatzen baditugu, balorazio positiboak arlo guztietan nabarmen igo direla dakusagu, Emakumeen Berdintasunaren arloan ezik, honetan igoera txikiagoa izan baita (6 puntutakoa). Balorazio positiboetan igoerarik altuenak Osasuna (ehuneko 34 puntu), Ingurumena (27 puntuko igoera) eta Hezkuntza (ehuneko 25 puntu) arloetan izan dira; azken honetan 2002ko maiatzeko datuekin konparatuz ere balorazio positiboan igoera txiki bat (ehuneko 5 puntu) izan duen bakarra dela dakusagu.

Preguntada la población de la CAPV de 15 y más años sobre la actuación de la administración en distintas áreas, las mejores valoraciones son para la sanidad (el 75% considera que es buena). Las actuaciones en relación a la educación (63%) y al euskera (56%) también reciben buenas calificaciones por parte de más de la mitad de la población.

La actuación de la administración en bienestar social es bien valorada por parte del 48%, en medio ambiente por el 46%, a favor de la igualdad de las mujeres por el 41% y, finalmente, en el tema de vivienda únicamente es bien valorada por menos de uno de cada cinco ciudadanos y ciudadanas (18%).

Comparando estos datos con los registrados en 1992, observamos que las valoraciones positivas han aumentado considerablemente en todas las áreas, a excepción de la igualdad de las mujeres, en la que el incremento ha sido de 6 puntos porcentuales. Los mayores incrementos en las valoraciones positivas corresponden a la Sanidad (incremento de 34 puntos porcentuales), al Medio Ambiente (incremento de 27 puntos) y a la Educación (25 puntos), el cual es, asimismo, el único con un ligero incremento en la valoración positiva respecto a mayo de 2002 (5 puntos porcentuales).

EAEko irakaskuntzaren balorazioa / Valoración de la enseñanza en la CAPV**Administrazioaren jardunaren balorazioa hainbat arlotan /
Valoración de la actuación de la Administración en distintas áreas**

(KOLEKTIBOKA) / (POR COLECTIVOS)

Oro har, nola ikusten duzu azken urteotan Euskadiko administrazioa egiten ari den lana ondoko arloetan: ondo, hala-hola edo txarto?**En general, ¿cómo le parece a Ud. que es la actuación que la Administración Vasca está llevando a cabo en estos últimos años en los siguientes temas: buena, regular o mala?**

	2004ko URTARRILA ENERO 2004	LURRALDEA / TERRITORIO			LANBIDE NAGUSIA / OCUPACIÓN PRINCIPAL				
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	LANEAN TRABAJANDO	LANGABEZIAN EN PARO	ETXEKO LANAK LABORES DE CASA	IKASTEN ESTUDIANDO	JUBILATUA JUBILADO/A
OSASUNA / LA SANIDAD.....	75	78	75	74	73	74	75	71	82
HEZKUNTZA / LA EDUCACIÓN.....	63	65	61	64	61	58	66	56	70
EUSKARA / EL EUSKERA.....	56	52	56	57	54	57	55	55	58
GIZARTE ONGIZATEA / EL BIENESTAR SOCIAL.....	48	60	42	52	47	44	47	41	56
INGURUMENA / EL MEDIO AMBIENTE.....	46	57	41	50	45	47	46	37	55
EMAKUMEEN BERTINTASUNA / LA IGUALDAD DE LAS MUJERES.....	41	48	37	43	41	38	36	38	45
ETXEBIZITZA / LA VIVIENDA.....	18	18	17	19	16	15	15	16	28

* ARLO BAKOITZEAN EGINDAKO LANA ONDO DAGOELA ERANTZUN DUTENEN PORTZENTAIA / PORCENTAJE DE QUIENES CONSIDERAN QUE LA ACTUACIÓN EN CADA UNA DE LAS ÁREAS PROPUESTAS ES BUENA.

Euskal administrazioak Osasuna, Hezkuntza, Euskera eta Etxebizitza arloetan duen jarduera berdintsu baloratu da hiru lurraldeetan. Gizarte Ongizatea, Ingurumena eta Emakumeen Bertintasunaren aldeko lana hobeto baloratu da Araban Gipuzkoan baino, eta azken honetan, Bizkaian baino.

Jubilatuek arlo guztietaz baloraziorik onenak eskaini dituzte.

La actuación de la Administración Vasca en Sanidad, Educación, Euskera y Vivienda es uniformemente valorada en los tres Territorios. La labor en el área de Bienestar Social, Medio Ambiente e Igualdad de las Mujeres es mejor valorado en Araba que en Gipuzkoa y en ésta mejor que en Bizkaia.

Los jubilados y jubiladas emiten las mejores valoraciones respecto a todas las áreas.

EAEko irakaskuntzaren balorazioa / Valoración de la enseñanza en la CAPV**Administrazioaren jardunaren balorazioa Hezkuntzan / Valoración de la actuación de la Administración en Educación**

(GUZTIZKOAK) / (TOTALES)


Oro har, nola ikusten duzu azken urteotan Euskadiko administrazioa egiten ari den lana HEZKUNTZA arloan: ondo, hala-hola edo txarto?

En general, ¿cómo le parece a Ud. que es la actuación que la Administración Vasca está llevando a cabo en estos últimos años en el tema de la EDUCACIÓN : buena, regular o mala?

	1992KO ABENDUA* DICIEMBRE 1992*	2002KO MAIATZA MAYO 2002	2004KO URTARRILA ENERO 2004
ONDO / BUENA	38	58	63
HALA-HOLA / REGULAR.....	36	31	26
TXARTO / MALA	19	7	4
ED-EE / NS-Nc	6	4	7
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100

*ARLO BAKOITZEAN EGINDAKO LANA ONDO DAGOELA ERANTZUN PORTZENTAIA / *PORCENTAJE DE QUIENES CONSIDERAN QUE LA ACTUACIÓN EN CADA UNA DE LAS ÁREAS PROPUESTA ES BUENA

**1992AN ERANTZUN AUKERAK BOST ZIREN: OSO ONDO, ONDO, HALA-HOLA, TXARTO, OSO TXARTO. KONPARATZEKO, TAULAN OSO ONDO+ONDO AUKERAK TALDEKATU DITUGU. GAINERA, INKESTATUAK 18 URTE EDO GEHIAGO ZITUZTEN / **EN 1992 LAS OPCIONES DE RESPUESTA ERAN CINCO: MUY BUENA, BUENA, REGULAR, MALA, MUY MALA. A EFECTOS COMPARATIVOS, EN LA TABLA SE HAN AGRUPADO LAS OPCIONES MUY BUENA+BUENA. ADEMÁS LOS ENCUESTADOS/AS TENÍAN 18 Y MÁS AÑOS



